

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko maiatzaren 9a. IX. urtea. 2.345. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

Lander Lasa Saskibaloijokalaria

## «Jokalari moduan izugarria izan da Illunbe zaleez beteta ikustea»

Lagun Aro GBC taldea denboraldi historikoa egiten ari da, Koparako zein 'play off'-etarako sailkatuz, eta Lander Lasa tolosarra lehen pertsonan bizitzen ari da hori guztia

Hilaren 18an hasiko du Gipuzkoako saskibaloijokari taldeak Valencia Basket taldearen aurkako 'play off' neurketa; Lasak aurrera egiteko aukerak ikusten ditu **03**



LEBERRI/ANDIA

→ **Olatuak Tolosan ere egingo du talka.** Larunbatean Donostia 2016ko Olatu Talka ekimena Tolosara iritsiko da herriko hainbat eragileren eskutik. Box.A elkartekok hiri baratzeel buruzko tailerra egingo dute, Sukal Talkaren barruan bost euroren truke bertako produktuekin osatutako bazkaria dastatu ahal izango da, eta Gaingitzen gorren elkarteko Julian Rodriguezek bakarriketa eskainiko du. **02**

### Auzolanean antolatutako Subegi eguna izango da larunbatean

Ibarrako Subegi kultur elkarteko hainbat taldek hartu dute Garagardo Festak utzitako hutsunea betetzeko ardura; egitarau luzea prestatu dute **07**

### Mendi ibilaldia antolatu dute Alkizan, San Isidro Egunaren harira

Jaien lehen ekitaldia bihar izango da; 17:30ean haur eta gazte literatura saioa egingo dute Gorka Kalzadarekin, eta ondoren, liburuak zozketatuko dituzte **04**

### Eskola txikien beharra aldarrikatu dute mendi tontorretatik

Eskola Txikien Festaren 25. urteurrena dela eta 25 Urte, 25 Tontor egin dute; «Euskal Herriko 25 tontor jendez jantzi ditugu», esan dute **06**



Olatu Talkaren barruan Tolosan egingo diren ekitaldien bultzatzaileen ordezkariak izan dira aurkezpenen. I.G.L.

## Olatu Talka ekimenarekin bat egingo du Tolosak, larunbatean

Hiri baratzei buruzko tailerra, herri bazkaria eta zeinu hizkuntzan egindako bakarriketa izango dira ekitaldiak

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Donostia 2016an Europako kultur hiriburua izango da eta horren harira sortu dute Olatu Talka ekimena. Egitasmo hori Gipuzkoa osora zabaltzeko proposamena egin dute Donostiako Udaletik, eta Tolosan bat egin dute asmo horrekin. Hala, datorren larunbaterako Sukal Talka bazkaria, Gaintitzen elkarteak antolatutako zeinu hizkuntzan egindako bakarriketa eta Box.A elkarteak antolatutako hiri baratzei buruzko tailerra egingo dira.

Hain zuzen, lehenengo ekimena hiri baratzeen tailerra izango da. Box.A elkarteak Miren Mendizabalek azaldu duenez, tailerrak bi zati izango ditu: «11:00etan David Juarez arkitetoak hitzaldia emango du kultur etxean espazio publikoen berreskuratzeen inguruan. Jarraian, hitzaldian esandakoa praktikan jartzeko zabor

edukiontzia moldatuko ditugu baratze mugikorrek sortuz». Tailerrak jarraipena izango du hilaren 19an. Izan ere, edukiontzi horien erabilpen egokia bultzatzeko asmoz, Iñigo Seguroa paisajistik tailerra emango du Box.A elkartearen egoitzan. Azken tailer horretan parte hartzeko eta ekimenaren berri gehiago izan nahi duenak [gu@boxagara.com](mailto:gu@boxagara.com) helbidera idatzi dezake.

### Bertako produktuak

Hiri baratzeen tailerra eta gero Sukal Talka bazkaria egingo da, 14:00etan hasita, bi gueneetan: Triangulua plazan eta Plaza Zaharrean. Kontsumo taldeak, bertako baserritarrak eta hainbat sukaldari ari dira parte hartzen ekitaldiaren antolakuntzan.

Kike Zinkunegik hitz egin du kontsumo taldeen izenean eta Sukal Talka bazkariaren ideia nola sortu den azaldu du: «Roberto Ruiz sukaldaria eta bere taldea kontsumo taldeekin harremanetan jarri zen, bertako produktuekin herri bazkari bat egiteko asmoz». Bazkariarekin lortu nahi diren hiru helburu zerrendatu ditu Zinkunegik, eta horiekin kontsumo taldeek ere bat egiten

duela azaldu du. Alde batetik, bertako produktuak bultzatu nahi dira, «garaian garaikoak eta kalitatezkoak» direlako. Bestalde, baserritarren lana goraiatu eta indarra eman nahi diete. Azkenik, salmenta zuzena bultzatzen duten ereduak indartu nahi dituzte. «Tolosako azoka hor dugu, altxor preziatua, eta bestetik, orain sortzen ari diren kontsumo taldeak». Larunbateko bazkariak helburu horren isla izan nahi duela azaldu dute. «Zerbait familiarra egitea nahi dugun», gaineratu du Zinkunegik.

Bazkariaren salneurria bost eurokoa izango da. «Prezio juxtua izango da. Baserritarrek azokan saltzen duten prezioan ekarriko dituzte produktuak eta kasu honetan bitartekariak kendu egiten dira. Sukaldarien lana musutruk da, eta beraz aipatu behar da elkarlanean egindako lana dela. Mahaia eta aukiak udalak jarri ditu», esan du Zinkunegik. Bazkaltzera doan pertsona bakoitzak eraman behar du behar duen guztia: platera, mahai tresnak, ezpazainzapiak, edalontziak, eta aparatueko edatekoa. «Eraman eta jaso egin beharko dituzte», esan du Zinkunegik, «beste helburua ahalik eta zabor gutxiena produzitzea izango baita». Bazkariaren izena emateko Tolosaldea Tour-ekin jarri behar da harremanetan, 943 69 74 13 zenbakira deituz edo [www.tolosaldea.net](http://www.tolosaldea.net) helbidean sartuz.

Sukaldarien aldetik, Ruth Selby, Elisha Ben-Haim eta Roberto Ruiz izan dira aurkezpenen. Selbyk azaldu duenez, bazkariaren izarra «bertako produktua izango da, eta baita produktoreak ere, sukaldariak ez baikara ezer oinarritzko produktuei gabe». Entsalada, patata berriak, baba eta baratxuriek, Kantauriko an-

txoak, yogurta, ogia eta ura izango dira menduan. «Ahal den manipulazio gutxiena egin ez prestatuko dugu bazkaria», azaldu du Selbyk. Bestalde, sukaldariak azken prestaketak bazkaltzeko guzuean bertan egingo dituzte.

Ekoiileen aldetik Gregorio Zuaznabarrek hitz egin du. «Gurutzat garrantzitsua da horrelako ekimen batean bertako produktuak eta produktorak aintzat hartzea», azaldu du Zuaznabarrek.

### Gorak ikustaraztea

Bazkaldu eta gero, 15:30ak aldera, Gaintitzen Tolosaldeko Gorren Elkarteak zeinu hizkuntzan egindako bakarriketa antolatu du. Julian Rodriguez izango da bakarriketalarria, eta aurkezpenen azaldu duenez, «oso pozik» dago ekimenaren parte hartzeagatik. Bakarriketaren bidez, «gorren elkartea eta zeinu hizkuntza ikustaraztea» nahi dute, «entzulea den gizarteak ikus dezan hor gaudela». Rodriguezek parodia bat egingo du, entzuleen eta gorren artean konparaketa batzuk eginen.

Edurne Mendia Tolosako Udalen Kultura zinegotziak azaldu duenez, ekimena Donostiako Udalarekin «lankidetzara polita» sortzeko eta, aldi berean, «Tolosara begira bertako eragileek lan bat batera egiteko eta harreman horiek sustatzeko» erabili da. «Udalak bitartekaritza lana egin du», azaldu du zinegotziak: «Proposamena bertako taldeei zabaldu zaie eta gero zuzenean egin dira eragileen arteko harremanak». Proposamen asko izan direla nabarmendu du Mendiak. «Nahiz asko bertan behera gelditu, gehienbat denbora faltagatik, aurrera begira horiei heltzeko aukera izango da», zehaztu du zinegotziak.

## Tolosako Zero Zabor taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu

Bestalde, gaur elkartuko da hondakinak kudeatzeko Gipuzkoako lantaldeak; Tolosaldeko ordezkaria ere joango da

### I. Garcia Landa-Eneritz Maiz

Tolosako Zero Zabor taldeak, «hondakinaren inguruan dagoen arazoaren aurrean», datorren astearteko ekitaldi sorta antolatu du, «tolosarre informazio zabala emateko helburuarekin».

Hitzaldiak, bideo emanaldiak, konpostaren inguruan erakustaldiak, eta atez ateko sistemak nola funtzionatzen duen ikusteko Heranira bisita gidatu bat antolatu dituzte. Bihar, hitzaldia antolatu dute, gaztelaniaz, *Basura cero: ¿Es posible sin el Puerta a Puerta?* izenburupean. Hitzaldi bera hilaren 15ean egingo dute, euskaraz. Bi hitzaldiak kultur etxean izango dira, 19:30ean. Tolosar guztiei egin diete gonbidapena solasaldietara joateko, eta iritzi, kezka eta galderak elkarbanatzeko.

### Gipuzkoa

Era berean, hondakin gutxiago sortzeko eta hauek kudeatzeko aholku batzordea ere abian da, eta gaur elkartuko da estreinekoz, 17:00etan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian. Bertan izango da Tolosaldeko Zabor Mankomunitateko lehendakaria, Ainhoa Ugalde.

Aholku batzordea eratzeko erabakia hartu zuen Diputatuen Kontseiluak, otsailen. Eratu duen batzordeak osatera zabala izango du; 45 kidek parte hartuko dute.

Batzordean Juan Carlos Al-duntzin Ingurumen eta Lurralde Antolamendu diputatua izango da lehendakaria. Batzar Nagusietako talde guztietako kideak ere izango dira bertan, eta baita mankomunitate guztietako ordezkariak ere.

### Batzordearen zeregina

Hondakinaren kudeaketari dagokion plangintza orokorra eta kudeaketaren analisia eta ebaluazioa egitea dagokio.

Hondakinaren kudeaketa orokorraren alorreko politikak aztertuko dituzte, beti ere udeletan hartutako erabakiak kontuan hartuta. Era berean, arategi aurreproiektuei, planei eta proiektuei proposamenak egingo dizkiete; hondakinaren kudeaketari buruzko iritzia emango dute; planei eta programei buruzko aholkuak helarazi...



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Lander Lasa ◉ Saskibaloi jokalaria

Denboraldi oso berezia bizitzen ari da Lander Lasa. Izan ere, Lagun Aro GBC Gipuzkoako saskibaloi taldea bere historiako marka guztiak hausten ari da.

# «Partidetan zaleek ikusten dute familia bat garela»

Imanol Garcia Landa

Bigarren urtea du profesionalen Lander Lasak (Tolosa, 1988). Biak Lagun Aro GBC taldean egin ditu, aurretik talde berarekin urtebetez entrenatzen aritu ondoren. Denboraldi historikoa egiten ari da Gipuzkoako saskibaloi taldea: Koparako eta ACB ligako play off-etarako lehen aldiz sailkatu da historian. Ligan bosgarren sailkatu dira, eta beraz, laugarrenaren aurka, Valencia Basket taldearen aurka jokatu du *play off* neurketa. Hilaren 18an kanpoan dute partida, eta hilaren 20ean etxean. Berdinketa izanez gero, hirugarren partida erabakiorra hilaren 22an jokatu dute, kanpoan.

**Nola ari zarete bizitzen denboraldi berezi hau aldagelan?**

Duela bost edo sei hilabete ligako azkenak ginen. Pixkana irabazten hasi ginen eta Koparako sailkatu ginen, eta hortik aurrera egunerokoa eta entrenamenduak askoz errazagoak izan dira. Orain, Valenciaren aurka dugu *play off* neurketa, eta ea aurrera egiten dugun.

**Hasiera ez bazen ona izan ere, gero partida asko irabazi zenituzten jarraian.**

Bederatzi partida segidan irabazi genituen eta Bartzelonaren aurka galduta eta gero, beste bost partida irabazi genituen jarraian. Horrek indarrak ematen dizkizu. Partidak galtzen dituzunean entrenamenduak gogorragoak dira, joateko gogo gutxiago duzu eta jokalarien arteko harremanak tentsio handiagokoak dira. Aurten entrenatzaile berria eta jokalar berriak etorri dira, eta entrenatzaileak eskatzen ziguna ulertu genuenean, eta familia giroa sendotu zenean, etorri ziren garaipenak. Entrenatzaile berriak defentsa lana areagotu zuen eta hori bereganatu genuenean etorri ziren emaitza hobekoak.

**Denboraldia borobila izan dela esan daiteke, play off-etan gertatzen dena kontuan hartu gabe.**

Hala da, bai guretzako eta bai Illunbera etortzen diren zaleentzako. 19 garaipen lortu ditugu, taldeak inoiz lortu duen kopuru handiena. Bai Koparako eta baita *play off*-etarako sailkatzea talde honentzako aurrerapauso handia da. Espero dut ere Donostiak diru gehiago ematea taldeari, datorren urtean ziurrenik Europan jolastuko dugulako. Taldearentzat urte historikoa izan da eta Illunbera bederatzi mila pertsonatik gora etorri dira azkeneko partida gehienetan. Guretzako zaleen animoak oso garrantzitsuak dira.

**Zaletu kopurua ere handitu egin dela nabarmena izan da, ezta?**

Aurten, aurreko denboraldiak ikusita eta Pablo Laso entrenatzailea joan ondoren, jende askok bazkide izateari utzi zion. Hasieran nahiko hotza izan zen giroa, betiko jarraitzaile taldeen animoak kenduta. Garaipenak etorri ahala eta Koparako sailkatzeak jende gehiago erakarri zuen eta azkeneko bi-hiru hilabete, jokalaria moduan izugarria izan da Illunbe beteta ikustea eta zaleak denbora guztian animoak ematen entzutea. Nik uste dut hori Donostian ez dela inoiz lortu.

**Taldeko bi jokalar, Andy Panko eta Sergi Vidal, ligako boskote onenean sartu dira. Pankok, gainera, jokalar onenaren saria jaso du eta Vidale Jarrera Urdina izeneko saria. Taldekideentzat ere bereziak izango dira sari horiek, ezta?**

Aurten dena borobila atera da. Gure aurrekontua erdi mailatik beherako taldeena da eta esfortzu handia egin zen urte hasieran. Panko eta Vidal taldean izateko. Oso jokalar onak dira, eta pertsonalki ere esan dezaket izugarriak direla. Jokalari denak familia batentzat modukoak gara eta Sito Alondo entrenatzaileak esaten duen



HITZA

moduan, errespetatzen gaituzten taldea gara.

**Edozein talde kiroletan, denboraldi on bat egiten duenak, beti izaten du giro ona aldagelan. Zuen kasuan ere hala dirudi.**

Emaitzak lortzeko giro ona izan behar da aldagelan. Gure taldean hasiera-hasieratik oso ona izan da. Batak besteari laguntzen dio, beterano asko ditugu eta gazteenoi asko laguntzen digute. Partidetan zaleek ikusten dute familia bat garela eta borrokatzeko beti prest gaudela.

**Pertsonalki nola izaten ari da zure denboraldia?**

Beti nahi duzu gehiago jolastu, baina aurtengo denboraldian gauza bat ikasi dut. Iaz, Pablo Lasorekin aurrendenboraldian minutu asko jokatu nituen eta pentsatu nuen asko jokatu nuela. Baina liga hasi zen eta bukaera arte ez nuen ezer ere ez jokatu. Aurten hasieratik garbi nuen nire lana taldeari entrenamenduetan laguntzea zela, eta beharrezkoa zenean jolastera aterako

nintzela. Hasieran zenbait lesio izan ditut, baina azarotik aurrera partidak jokatu ditut. Nik garbi dut nire ikaste prozesuan profesional mailan urte hau izan dela onena.

**Partida batean titular moduan jokatzen zenuen, eta entrenatzaileak zure lana goraipatu zuen. Nola bizitu zenuen une hura?**

Aurten hiru partidetan titular izan naiz, eta Caja Laboralen aurkakoa berezia izan zen, lehenengo aldiz zaleek nik egindako lana txalotu zutelako. Aldatu zidatenean, lehen laurdena bukatu baino lehen, hamar puntu gora gindozan eta nik defendatu nituen jokalariek ez zuten punturik sartu, eta jendea ikustea zutik zuri txalo eginez... niretzako egun oso berezia izan zen. Gainera, entrenatzaileak nire lana goraipatu zuen, eta ilusio handia egin zidan, eta lanean jarraitzeko motibazio handia izan zen.

**Taldearentzako ere oso garrantzitsua izango da zu bezalako jokalariek izatea, berez minutu asko jokatzen ez dituenak, baina kantxara ateratzerakoan taldearen maila mantentzen dela ikustea.**

Taldekideek esaten didate azken hiru hilabeteetan oso ondo ari naizela entrenatzen. Defentsa lanetan asko hobetu dudala ikusi dut. Orain, *play off*-etara begira, minutu asko jokatu duten taldekideek ikustea bere ordezkoa sartzeko ondo etortzen da.

**Play off-etako neurketa nola ikusten duzu?**

Guretzat Valencia Basketen kontra jokatzeak motibazio handia du, laugarrena baita, eta beraz lehen postuetan sailkatu diren etatik ahulena da. Gogo handiekin gaude eta ikusten dugu aukerak ditugula neurketa gainditzeko. Eta hori gertatzen bada, denboraldia laugarren bukatzea izugarri da. Espero dugu etxean jokatu behar dugun partidaren Illunbe goraino betetzea. Jarraitzaileen laguntza oso garrantzitsua izango da neurketan aurrera egiteko.

# Mendi Ibilaldi Mundialaren VII. edizioa antolatu dute Sanisidroetan, Alkizan

Hilaren 15eko Baserritarren Eguna ospatzeko, lau eguneko egitarau oparoa antolatu du Kirol batzordeak

**Asier Imaz** Alkiza

Alkizako VII. Mendi Ibilaldi Mundiala larunbatean izango da. 09:00etan irtengo dira mendizaleak Alkizatik, eta Errota Zahar, Baldosas Jarri, Urmara, Sarobe eta Mendiolatik pasa ondoren, berriro Alkizara itzuliko dira.

Mendi irteera San Isidro Egunaren harira antolatu dute Kirol batzordeko kideek. Hilaren 15ean, Baserritarren Eguna ospatzen da Euskal Herrian, eta Alkizan lau eguneko egitaraua antolatu dute egunari ongi etorria egiteko. Jaia ospatzen bihar hasiko dira.

## Lehen eguna, liburategian

San Isidro jaien lehen eguna, biharkoa, liburategian pasako dute haur eta gaztetxoek. Lehe-

## ↓ Egitaraua

### MAIATZAK 10, BIHAR

- **17:30ean.** Haur-gazte literatura saioa Gorka Kalzada idazlearen eskutik Alkizako liburategian.
- **Ondoren.** Liburutegi sareko txartela eramaten dutenen artean, liburuak zozketatuko dituzte.

### MAIATZAK 11, ETZI

- **17:00etan.** Ginkana proba Alkizako gaztetxoentzat herriko plazan.
- **Ondoren.** Diskoteka 12 urtetik beherakoentzat.

nik eta behin, Gorka Kalzada idazlearekin egoteko aukera izango dute, literaturaren inguruan hitz egiteko. Ondoren, liburuak zozketa egingo dute. Horretarako baldintza bakarra egongo da, liburutegi sareko txartela ematea, hain zuzen ere.

### MAIATZAK 12, LARUNBATA

- **09:00etan.** Alkizako VII. Mendi Ibilaldi Mundiala. Amaieran mokadutxoa parte hartzaile guztientzat.
- **17:00etan.** Kurpil lasterketa 12 urtetik beherakoentzat.
- **Jarraian.** Gaztetxoentzat giza-proba gurpil erraldoiarekin.

### MAIATZAK 13, IGANDEA

- **10:00etan.** Meza Nagusia.
- **Egurdetik aurrera.** Hernioko martxak herria zeharkatuko du.
- **18:00etan.** V. Frontenis Masters Txapelketako finalak.

Bigarren egunean, etzi, 12 urtetik beherako haurrentzat antolatu duten ekimen berezia azpimarratu behar da, izan ere, gaztetxo hauek zurrerik euren bizitzako lehen diskoteka saiora joateko aukera izango dute Alkizan. Bide osasuntsutik ez okertzeko, aurrez

## → Laburrak

### Bordeleko azokara joateko autobusa antolatu dute

**LARRAUL** › Bordeleko azokara joateko autobusa antolatu dute Larrauletik. Azoka hilaren 12an, larunbatean da. Larrauletik autobusa 06:30ean irtengo da. Alkizan 06:45ean egingo du geldialdia, Zizurkilen 06:50ean eta Adunan 07:00etan. Izena emateko azken eguna gaurkoa da. Bidaiaaren kostua 20 eurokoa da.

### Herri Urratserako autobusa eta Nafarroa

**ZIZURKIL** › Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute Zizurkilen. Izena emateko epea bihar amaituko da. Egarrin, Atxulondon, Iriarte jatetxean eta udal bulegoetan daude zerrendak. Bestalde, Maiatza Saltsan ekimenaren baitan, bideo proiektzioa eta tertulia izango dugu bihar 19:30ean, Atxulondo Kultur Etxean. *1512, Nafarroaren konkista* izeneko bideo proiektzioa ikusteko aukera izango da bertan, eta ondoren azalpenak emango ditu Nabaralde elkarteak Anjel Recalde.

### Santio Txapelketan izena emateko aukera

**VILLABONA** › Behar Zana Kirol Elkarrekin antolatzen duen pilotari txapelketan izena emateko epea herenegun zabaldu zen. Hilaren 25a bitarte, beraz, Santio Txapelketan apuntatzeko aukera dago. Modalitateak honakoak izango dira: palaz, frontenis eta eskuz binaka. Federaturik ez daudenentzat antolatu dute txapelketa.

### Pako Aristiren hitzaldia, gaur, 19:00etan Mintzolan

**VILLABONA** › Euskara zerbitzuak Pako Aristiren hitzaldia antolatu du gaur. Mintzolan hitz egingo du idazleak, 19:00etan, Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean gaiaren inguruan. Hitzaldia Villabonako Euskara zerbitzuaren euskara goxoa gurea, egiozu hozka! ekimenaren baitan dago.

### Torturari buruzko liburua aurkeztuko dute, bihar

**VILLABONA** › Euskal Memoria Fundazioak bere azken liburua aurkeztuko du bihar, osteguna, Mintzolan. Euskal Herrian azken 50 urteetan tortura pairatu duten herritarrok bildu dituzte liburuan, oroimen historikoa lantzeko asmoz. Hitzaldi itsura izango duen liburuaren aurkezpena 19:00etan hasiko da. Eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte Mintzolaria.

### 'Oporretan euskaraz 2012' rako begirale bila

**ZIZURKIL** › Udalak *Oporretan euskaraz 2012* udalekuak antolatu ditu, ekainaren 25etik uztailaren 20ra bitarte. Bertan begirale lanak egin nahi dituenak, hilaren 18a baino lehen eman beharko du izena. Sei begirale kontratatuko ditu udalak. Informazio gehiagorako 943 69 24 95 zenbakira deitu behar da, goizez.

### Asvinieneak webgune berria zabaldu du

**ADUNA** › Asvinieneak webgune berria zabaldu duela iragarri du: [www.asvinienea.com](http://www.asvinienea.com). Bertan, arte eszenikoen laborategiaren inguruko informazio zabala dagoela iragarri dute, nabigatza gongibidatuz.

## Behorlegira joango dira Aizkardikoak, igandean

**Erredakzioa** Amasa-Villabona

Donaxiti eta Behorlegi arteko mendi ibilaldia egingo dute igande honetan Aizkardi mendi taldeak antolatuta. Eskualdeko mendizaleek, beraz, sei orduko itzuli eder honetara joateko aukera izango dute hilaren 13an. Horretarako, 649 71 71 82 telefono zenbakira deitu beharko dute, 20:00etatik 22:00etara, eta hilaren 11 baino

lehen. Aizkardi Mendi Elkartera joanda ere izena emateko aukera dago. Irteera ordua 06:30ean jarri dute Villabonako Olaederra kiroldegian.

Bidutzeko parking-etik abiatuko dira mendizaleak, Beltzurako gainerantz. Hemendik, Hauxkoara joango dira, azkenik Behorlegira iristeko. 21 kilometroko ibilbidea dela azaldu dute Aizkardi mendi taldek.

## Villabonako Lain taldearen lokalean eta gaztetxean lapurtu dute

**A. Imaz** Villabona

Larunbat goizaldean Lain musika taldearen lokalean eta Villabonako gaztetxean lapurrak sartu ziren. Musika tresnak eta hainbat material lapurtu zituzten Lain musika taldearen egoitzatik. Kontzertu garaian murgilduta, inguruko musika taldeen laguntza jaso dute Laineko kideek, euren hitzorduetara hutsik ez egiteko.

Taldeak Facebook-ean azaldu zenez, entsegu lokalera sartu ziren lapurtzera, eta bertan zegoen material guztia eraman zuten: baxua, gitarra, amplifikagailuak, mikrofonoak, konpresoreak, Inear-ak, kamisetak... Jasotzen ari diren laguntza ere eskertu nahi izan dute Lain taldeko kideek.

Gaztetxeari dagokionez, lapurrek bi baffle eta edaria eraman zituzten. Villabonako gazte asanbladako kideek lapurreta hau salatu nahi izan dute.



Donaxiti eta Behorlegiko parajeak ezagutuko dituzte Aizkardikoak. HITZA

## Irudia Villabona



## INGELESEZ, BARNETEGIAN

Fleming ikastetxeko 6. mailako ikasleek astebetez ingeles hizkuntzan murgiltzeko aukera izan dute, barnetegian, Gasteizen. Ingeles hizkuntza erabiliz, lana eta elkar bizitza uzta zizuten. Ikastetxetik azaldu dutenez, «ikasleek atzeritar hizkuntza honi zioten hasierako beldurra baretzeko balio izan du esperientzia honek». Bertan zeuden irakasleak herrialde ezberdinetatik etorritakoak ziren. HITZA

## XIV Orduak →

# Proba barrutik ezagutzeko mahai ingurua

Maiatzaren 27ko mendi ibilaldia sei ikuspuntutatik ezagutzeko aukera izan da, Tolosan

**Itzea Urkizu** Tolosa

Maiatzaren 27an ospatuko dute, aurten, XIV Orduak mendi ibilaldia, eta eguna girotze aldera, sei hizlarirekin mahai ingurua izan zen herenegun, Tolosako kultur etxean, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak antolatuta.

Joxemi Saizarrek aurkeztuta-ko hitzaldia, 20:00etan hasi zen, eta <http://tolosa.hitza.info> webgunearen bidez zuzenean jarraitzeko aukera ere izan zen. Sei hizlari aritu ziren, mendizaleen olinpiada izaten den egunari buruz hizketan, ikuspegi anitzetatik.

Aralarko Adiskideak elkarte antolatzaileko Jon Ormazabalek hitz egin zuen, lehenengo, eta hainbat datu historiko eskaintzeaz gain, aurten ibilbidean egin dituzten aldaketa txikiez aritu zen. Nekane Tolosa, berriz, mendizale moduan aritu zen, afizioz parte hartzen nola hasi zen kontatuz. Demetrio Bengoak ere, bere esperientzia baliatu zuen hizketarako, 10 aldiz parte hartu baitu proban. Alberto Luengo biologoak, duela 12 urte ibilbidearen inguruan egindako azterketa biologiko-geologikoa izan zuen hizpide, eta Hur Lertxundi medikuak, XIV Orduak burutzeko hainbat gomendio eman zituen. Maddi Bengoetxea, berriz, iraupen luze-ko ibilaldiez aritu zen.



Joxemi Saizar aritu zen aurkezle lanetan, kultur etxeko solasaldian. A. MAZ

## ↓ Hizlariak

### Jon Ormazabal

Aralarko Adiskideak elkarteko kidea

«Aurten aldaketa txiki bat egin dugu ibilbidean, bi arrazoirengatik: segurtasunagatik, eta ahalik eta errepide gutxien iza-teagatik. Lekunberrira sartzeko Plazaolako trenbidea hartuko dute mendizaleek».

### Nekane Tolosa

Mendizalea

«Gaztetan, hainbeste jende Armezetatik pasatzen ikusteak izugarriko ikusmina sortzen zidun, izugarria zen guretzat. Gaztetan parte hartzeko aukerarik ez, eta 44 urterekin irten nintzen lehenengoz XIV Orduak mendi ibilaldian».

### Alberto Luengo

Biologoa

«Lurzorua, fauna, flora eta hondakinak aztertu nituen ibilaldian zehar eta ondoren, eta XIV Orduak probak ez du eraginik ingurumenean; horren giltza zein den? Lau urtez behin baka-rrik egiten den proba dela».

### Maddi Bengoetxea

Aizkari mendi elkarteko kidea

«Duela urte batzuk, iraupen luze-ko ibilaldietan 200 edo 300 lagunek parte hartzea arrakasta zen. Gaur egun, guk antolatzen dugun martxan, 1.000 lagun izaten dira urtero, gutxi gorabehera».

### Hur Lertxundi

Medikua

«Gomendio berririk ezin da eman. Argi dago gorputza pres-tatu behar dela, eta elikadura zaindu egin behar dela aurretik, bitartean eta ondoren. Baina horrez gain, burua ere prestatu egin behar da 14 orduko proba bat jasateko».

### Demetrio Bengoa

Mendizalea

«Gazteak ginenean astakeriak egiten genituen. Asteaz zehar ez genuen mendirako denborarik izaten, lana besterik ez zelako; grina, ordea, betidanik izan dut mendirako, eta 30 urterekin hasi nintzen proba luzeetan».

## Izaskun Jauregi • Mendizalea

# «Eguraldiak eragin handia izango du ibilaldian»

**I. Urkizu** Tolosa

Urte osoan zehar mendian ibiltzen da Izaskun Jauregi (Gaztelu, 1961), baina XIV Orduak bezalako ibilaldi luzerik sekula ez duela egin dio. Datorren maiatzaren 27an, eguraldiari begira hasiko du proba.

**Aurtengo XIV Orduak prestatzen hasia omen zara jada. Lehen aldia al da?**

Bai, bai, lehen aldia da aurtengoa. **Eta nolatan erabaki zenuen ibilaldian parte hartzea?**

Egia esan, XIV Orduak ibilaldiak betidanik arreta eman izan dit, ibilbidea nire jaiotetxearen ondo-ondotik pasatzen baita. Sekula ez naiz egitera animatu izan, hala ere. Aurten, ordea, normalean mendian ibiltzen garen taldeko lagun batek esan zidan, ea animatuko ginene; probatzeko gogoia ere banuen, eta baiezkoa eman nion. Eta horixe izan da ibilaldian izena emateko arrazoia.

**Egun horretarako bereziki prestatzen ari zara?**

Ba ez gehiegi. Eguraldiak ez du asko lagundu azkenaldian, eta oraindik, saio luze samar bakarra egin dut mendian. Gauza handirik ez dut egin, beraz.

**Dena den, urte osoan mendian ibiltzen zara zu, ezta?**

Bai, normalean joaten naiz. Horrelako ibilbide luzeak ez ditut egiten; udan Pirinioetan eta inguruan ibiltzen naiz, baina urte osoan zehar hemen, igandeetan joaten naiz, eta lau, bost edo sei ordu-



HITZA

ko ibilbideak egiten ditut, ez luze-agoak.

**Maiatzaren 27an, eguna bera nola-koa izatea espero duzu? Trikimailurik ba al duzu oinak ongi izateko-eta?**

Pentsatzen dut eguraldiak eragin handia izango duela ibilbideko gorabeheretan. Bero handia egin, edo euria egin, adibidez, aldea handia izango da parte hartzaile-ontzat. Nire ustez, onena tenperatura freskoa egitea eta ateri egotea da, baina ez dakit zer gertatuko den. Oinei dagokienez, ba-beru egingo ditut irten baino lehen: ondo hidratatu, honetan esperientzia dutenei aholkuren bat edo beste eskatu, beraiek esanda-koa egin, eta ahal dudan tokiraino joango naiz. Hori da trikimailu bakarra: egun horretan oinek nola erantzunago duten ikustea. **o iurkizu@hitza.info**



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info

**XIV Orduak probarekin!**

**tolosaldea.hitza.info** webgunean, XIV Orduak probaren atalean,

ibilbidearekin zerikusia duten albisteak dituzu eskuragarri: elkarrizketak, probaren xehetasunak, aholkuak...

• **Maiatzaren 23an gehigarri berezia** argitaratuko dugu HITZArekin batera; antolatzaileen hitzak, medikuen aholkuak, ibilbidearen nondik-norakoak, garai bateko argazkiak...

• **Maiatzaren 27an**, XIV orduen egunean, **HITZAK presentzia berezia izango du**; ... egunean zehar webgunean eta sare sozialetan ibilbidearen berri emango du momentuoro. ... San Migelen bertan presentzia izango du. ... gauean, proban parte hartu duten guztien argazkiak zintzilikatu ditu webgunean, nahi duenak eskuratu ditzan.

• **Maiatzaren 28an**, astelehenean, bezperako probaren inguruko **ale berezia** argitaratu eta banatuko du HITZAK eskualde guztian.





Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Altzo, Berrobi, Ikaztegieta, Larraul eta Lizartzako ikasle, guraso, irakasle eta herritarrak mendi tontorretara igo ziren. HITZA

## Villabonan gertatutako erasoak «gogor» salatu ditu Bilgunek

**E. Maiz**

Bilgune Feminista taldeak Villabonan orain bi egun gertatutako erasoak «gogor» salatu ditu. «Horrelako erasoek oraindik ere gure jendartean pairatzen dugun matxismoa azaleratzen dute, eta orain arteko berdintasun plan eta arauen porrota», azaldu dute. Era berean, erasotuak izan diren emakumeei babesa eta elkartzasuna adierazi nahi izan diote taldeko kideek.

«Orain arteko errezeten baliogabetasuna azaleratu nahi dugu. Matxismoa bultzatzen duen sistema kapitalista patrialkarra bultzatuz ez da posible berdintasun plan eta arauen fruituak jasotzea» nabarmendu dute. «Gure artean bilduz, autodefentsa feminista aldarrikatu nahi dugu», gineratu dute.

Emakumeei antolatzekeo deia egin diete, «eraso hauekin bukatzeko errezeta guk geuk bilatu eta aurkituko dugun», diote.

## Lehiberrik formakuntza jardunaldia antolatu du etzirako

**I. Garcia Landa**

Lehiberrik hainbat ekimen antolatu ditu maiatza eta ekainerako. Lehenengoa etzi izango da, hilak 11, formakuntza jardunaldi bat eginez, *Dibertsifikazioa eta barne-kintzailetasuna enpresan* izeneko. Apatiaerrekako Tailsa erakinean izango da, 09:00etatik 13:00etara. Tolosaldeko enpresei zuzendutakoa da eta plazak mugatuak dira.

### Lan merkatuaren erreforma

Beste ekimena jardunaldi berrie-maila izango da, ekainaren 15ean, *Lan merkatuaren erreformaren gakoak* izeneko. Bi ordu iraungo ditu eta Tolosaldeko enpresetako giza baliabideetako arduraduneei eta kudeatzaileei zuzendutakoa da. Horrez gain, Lehiberrik azaldu dute maiatzaren 30ean amaitzen dela Brasilerara joateko azaroan egingo den misio komertzialerako izena emateko epea. Ekitaldi guztietarako 943 65 45 01 zenbakira deitu edo *enpresa@tolosaldea.net* helbidera idatzi behar da.

# Tontorretatik aldarrikapen hotsak

Eskualdeko eskola txikiek 25 Urte 25 Tontor ekimenean parte hartu dute, hainbat tontor igoz

**Eneritz Maiz**

Eskola Txikien Festak 25 urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, 25 Urte 25 Tontor ekimena egin dute asteburuan, Eskola Txikien koordinakundeak antolatuta. Ez ziren urrutira joan, eta herriko eskola

bakoitzak inguruan duen mendia aukeratu zuten. Batzuk larunbatean igo zituzten tontorrak, eta besteek igandea izan zuten ikasle, irakasle eta gurasoekin egun pasa egiteko. Euri tantak eta eguzki izpiak izan zituzten bidelagun.

«25 tontorrak asteburu berdinean igo ditugu, elkarrekin egon ez arren, batera egiten dugun ekimena da», diote koordinakundetik. «Euskal Herriko 25 tontor jendez jantzi ditugu», adierazi dute.

Albizturgoak, Mendikute mendia igo zuten; Abaltzisketakoak

Txutxurumendira joan ziren; Zizurkilgoek, Urkamendi mendia aukeratu zuten; Bidegoiandarrak, Txinkorta mendira igo ziren; Larraul herria Murgilen izan zen; Adunatik Belkoainera joan ziren; Alkizakoak Mendiola igo zuten; Ikaztegieta Intxurren igo ziren, Lizartzarrek Orexako Espuru igo zuten eta Berrobiarrek Akolegi mendia igo zuten.

Eskola txikiak ere gizartearen parte direla diote. «Txikiak izanagatik hortxe gaude» nabarmendu dute. «Eskola txikiak dira herri askorentzat, umei eskola emate-

ko toki bakarra, eta, beraz, herriko bizitza bermatuko duten esperrantza. Eskerrik asko gailurra zapaltzen lagundu diguzuen ikasle, ikasle-ohi, guraso, irakasle, eskoletako langile, eta herrikide guztuztiei; eskerrik asko herri eta auzo txikiak bizirik mantentzen laguntzen duzuen guztiei», gaineratu dute.

Herriak eta eskolak iraungo badute, elkarren beharra dutela aldarrikatu nahi dute. Horretarako festa, ekainaren 3an izango da, Larraul.

• [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

# Herri bazkaria, jolasak eta kontzertuak izango dira larunbateko Subegi egunean

Garagardo Festak utzitako hutsunea beteko du ekimenak; herritar eta adin guztiei zuzenduta dago

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Ibarrako Subegi kultur elkartearen inguruan mugitzen diren hainbat taldek antolatuta, Subegi eguna izango da larunbat honetan. Aurten egingo ez den Ibarrako Garagardo Festaren hutsunea bete nahi du Subegi egunak, «haurrentzat nahiz helduentzat, eta herritar guztiei irekia den egitarauarekin».

Garagardo Festak utzitako lekua betetzeko, hainbat ideia ziztuzten antolatzaileek, baina azkenean Subegi eguna aukeratu zuten. «Garagardo Festa herri guztira zabalduko ekimena zenez, Subegi egunak helburu bera izaten jarraitzen du, horregatik, herri bazkaria antolatu dugu mahaiaren inguruan herritarrek elkartzeko asmoz», adierazi dute antolatzaileek. Bazkariko giroa alaitzeaz dultzaineroak eta bertsolariak arduratuko dira.

Antolatzaileek deialdi berezia egin diete parte hartu nahi dutenei, sarrerak aurrez eros ditzaten. Gogoratu dute, gainera, haurrentzako menu berezia jarriko dutela.

## Jolasak eta kontzertuak

Haurrek euren lekua edukiko dute, beraz, larunbatean, izan ere, bazkariak gain, arratsaldean jolasak izango dituzte. Hain zuzen ere, mural margoketa egingo dute, margoekin elkarlanean jolasteko aukera izango dutelarik. Antolatzaileek margotzeko arropa egokiak ematea gomendatu diete gaztetxoak.



Zea Mays taldea izango da larunbatean Emeterio Arresen. HITZA

## ↓ Datuak

### EGITARAUA

- **12:00.** Dultzaineroak herrian barrena, Bartola erraldoiarekin.
- **14:30.** Bertso bazkaria, Alaia Martin eta Xabier Silveirarekin, Emeterio Arrese parkean.
- **Ondoren.** Haurrentzat jolasak. Mural bat margotuko dute.
- **20:30.** Kontzertuak Emeterio Arrese parkean: La Jodedera, Willis Drummond, Zea Mays eta Hesian taldeak. Ondoren, DJ Elepunto eta DJ Bull.

Bestalde, gauean festak jarraipena izango du zuzeneko musika-rekin. Emeterio Arrese parkean lau talde eta bi DJ arduratuko dira giroa goizaldera arte gozatzeko. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte egun guztiko jai honetan parte hartzera.

### Boluntarioen lana

Subegi elkarteak kideek larunbateko egitaraua «boluntario lane-

### TXARTELAK

- **Bazkarirako.** Ibarrako Subegin, Zubiaurren eta Atarin aurkitzen dira. Helduentzat 12 euro eta haurrentzat 6 euro.
- **Kontzertuetarako.** Aurrez 10 euro eta egunean 12 euro. Salmenta puntuak: Ibarrako Subegi, Karlatz, Zubiaurre eta Atarin; Tolosako Denak, Raku, Meskal eta Eguzkin; Alegiako Ixkiñan; Villabonako Iratzarren; Anoetako Itzulin; eta Leitzako Torrean. Baita *musikaze.com*-en ere.

an oinarrituta» antolatu dutela nabarmendu dute. «Herriko hainbat talde ariko dira lanean larunbatean, eta baita igandean ere, garbiketa lanak egiten», esan dute. Eskualdeko herritarren laguntza ere izango dute Subegi egunean eta guztiei alde zuzeneko eskerrak eman nahi dizkiete Subegi kultur elkartetik. Guztira 60 lagun inguru ariko dira boluntario lanetan, auzolanean. [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

# Curriculum bilketa egingo dute «Sarrio lantegian lan egiteko»

Iruña Empleo-n izena eman eta curriculumak etzi baino lehen uzteko eskatu die emakumeei Bilgune Feministak

**I. Terradillos** Leiza

Pasa den urtean egin moduan, aurten ere, curriculum bilketa egingo du Leitzaldeko Bilgune Feministak, «emakumeei Leitzako Sarrio lantegian lanpostua lortzeko helburuz».

Iaz burutu zuten kanpainak «emaitza onak» utzi zituela adierazi dute Bilgune Feministatik, «Sarrio emakumeak kontratatzen hasi baitira eskulanerako». Horregatik, aurten ere, uda iristear denez, eta «Sarrio lantegian

udako kontratazioekin laster hasiko direnez», curriculumak bilteari ekingo diote.

Leitzaldeko Bilgune Feministak adierazi duenez, «oraindik ere lantegian bertan parekidetasunera iristeko lana dago egiteko». Baina, argi du bertan lan egin nahi izanez gero elkartu egin behar dutela, eta iazko bide beretik jarraitu. Hau da, «Leitzaldeko emakumeen curriculumak bildu, eta LAB sindikatuaren bitartez, Sarrio lantegian kontratazioaz arduratzen direnei entregatu».

Horretarako, Bilgune Feministak Iruña Empleo-n izena emateko eskatu die emakumeei, eta etzi, hilaren 11, baino lehen, curriculumak *leitzaldekobilguneafeminista@gmail.com* helbidera bidaltzeko edota Leitzako Karrape irratian uzteko.

## → Laburrak

### San Isidro eguneko bazkarirako txartelak

**BERASTEGI** › Datorren asteartean, hilaren 15ean, San Isidro eguna ospatuko dute Berastegin. Prozesioa, meza, bazkaria eta trikiti doinuak izango dira. Bada, bazkarirako izena emateko 25 euro ordaindu beharko da, eta bihar izango da azken eguna. Gaztainondo elkartearen (943 68 32 64) egin ahalko da.

### Festa batzordearen bilkura, bihar, udaletxean

**IBARRA** › Festa batzordearen bilkura izango da bihar, San Bartolome jaiak antolatzeari ekiteko. 19:30ean hasiko da bilera, Ibarrako udaletxeko batzar aretoan.

### Uraren kudeaketaren inguruko bilkura, etzi

**BERASTEGI** › Uraren kudeaketaren inguruko batzarra egingo dute etzi, ostiralean, 20:30etik aurrera, eskolako ganbaran. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Urak-eko Iñigo Eloseggi izango da bertan, eta Berastegiko egoeraz eta emango diren aldaketen inguruan azalpenak emanango ditu. Berastegiko Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu bilerara, eta «gaiak herrian duen garrantzia dela eta», ahalik eta jende gehien elkartzeko espero du.

### ‘Sua’ filmaren grabaketan eginiko argazkiak ikusgai

**IBARRA** › Eneko Aritzaren Lagunak elkartearen *Sua* filma laster da estreinatzekoa. Hori iritsi bitarte, ikusgai daude grabaketako argazkiak, Ibarrako kultur etxean, hilaren 18ra arte.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Tolosa



## LIMOUSIN ENPRESAK 100 URTE

Limousin enpresak 100. urteurrena betetzen du aurten eta hau ospatzeko, gaur egungo langileek eta bertatik pasa direnek bazkaria egin dute Fronton jatetxean. «Enpresa honen historia lehenagotik dator. 1888. urtean Limousin familiak, txokolate eta txikoria egiten zuen enpresa sortu zuen Tolosan, Igarondo auzoan, eta handik urte

batzuetara beraien produktuentzako enbalajeak egiten hasi zen. Horrela produkzio honen lehen datuak 1912koak dira eta hortik aurrera Cartona-jes Limousin izena jarri zioten enpresari», gogoratu dute enpresako arduradunek. Aipatu behar da, era berean, gaur egun langileek dutela enpresako akzioen gehiengoa. HITZA

## Agenda

### DEIALDIK

- **Tolosa.** Hondakinaren kudeaketarako lantaldearen hirugarren saioa gaur, 18:30ean, pleno aretoan.
- **Alegia.** Haurreskolan 0 eta 2 urte bitarteko haurren izena emateko epea zabalik dago. Azken eguna hilaren 4a izango da.
- **Tolosa.** Igandeko Herri Urretsera joateko autobusa antolatu du Galtzaundik. Izena 943 65 50 04 zenbakira deituta eman daiteke. Autobusa 08:30ean irtingo da zezen plazatik.
- **Alegia.** Larunbateko Euskal-Herria Palestina Elkartasun Eguneko bazkarirako txartelak Hilarion, Ixkiñan eta Jubilatuetan eskuratu daitezke, edo Tolosako Rakun.
- **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldearen kanpaldian parte hartzeko 635 74 64 47 telefono zenbakira deitu behar da. 8 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako kanpaldia da.

### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Arantza Munitaren lanak Aranburu jauregian, hilaren 19a bitarte.
- **Tolosa.** Herriko hainbat eragilek antolatutako Nafarroako Estatua Gogoan ekimenaren barruan, *Herri bateko mapak* erakusketa ikusi daiteke Aranburu jauregian. Hilaren 27a izango da lanak ikusteko azken eguna.

### Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak



### Zilarrezko ezteiak!

**Rosa Malen eta Luis.** Beste 25 urtez horrelaxe segi. Zorionak eta muxu handi bat Oihana eta Mikelen partetik!

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●● **agurrak**

## BERRIA egunkarian udan KAZETARI PRAKTIKAK egiteko deialdia

### PROBA EGITEKO EGUNAK ETA TOKIAK

#### GIPUZKOAN

**EGUNA:** maiatzaren 9a.  
**TOKIA:** Andoingo Martin Ugalde kultur parkea.  
**ORDUA:** arratsaldeko lauretan.

#### BIZKAIAN

**EGUNA:** maiatzaren 9a.  
**TOKIA:** EHUko Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 1. gelan.  
**ORDUA:** eguerdiko hamabietan.

#### ARABAN

**EGUNA:** maiatzaren 9a.  
**TOKIA:** BERRIaren Gasteizko egoitzan (Bizenta Mogel, 6, behea).  
**ORDUA:** goizeko bederatzi eta erdietan.

#### NAFARROAN

**EGUNA:** maiatzaren 9a.  
**TOKIA:** BERRIaren Iruñeko egoitzan (Iratzeko monasterioa, 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre).  
**ORDUA:** goizeko hamarretan.

**Probara curriculumama ekarri behar da**